

Estadística de Defunciones

Análisis de resultados

Heriotzen estatistika

Emaitzen analisia

Lanketa / Elaboración:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia / Fecha:

II-2006

Argitalpena / Edición:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

EN 2000 EL NÚMERO DE DEFUNCIONES EN LA C. A. DE EUSKADI ALCANZA LA CIFRA DE 18.242, SUPERANDO EN 926 A LOS NACIMIENTOS.

La estadística de Defunciones junto con la de Nacimientos y Matrimonios constituyen el Movimiento Natural de la Población. La antigüedad de esta estadística, de la que se tiene información desde 1861, permite conocer los cambios demográficos que se han producido en este período y su evolución. El Movimiento Natural de la Población determina, junto con los movimientos migratorios, las fluctuaciones de la población.

El número de fallecidos en la Comunidad Autónoma de Euskadi en 2000 asciende a 18.242, 9.801 varones y 8.441 mujeres. Con 154 defunciones menos que el año anterior, se ha producido una disminución de un 0,8% con respecto a 1999. Por territorios, 2.191 personas residían en Alava, 10.214 en Bizkaia y 5.837 en Gipuzkoa.

En la tabla 2.3 de esta publicación se puede conocer la evolución de las defunciones desde 1989 y su distribución municipal, comarcal y territorial. El aumento de las defunciones en los últimos años se debe al aumento de población anciana, como consecuencia de los avances realizados en la prevención y el tratamiento de las enfermedades.

La edad media de los fallecidos en 2000 se sitúa en 74,7 años, 70,9 para los varones y 79,2 para las mujeres, que alcanzan mayor longevidad. Hasta los 80 años, en todas las edades el número de defunciones de varones es superior al de mujeres. Concretamente desde los 3 hasta los 73 años fallece más del doble de varones que de mujeres. Sin embargo, a partir de los 80 años la relación se invierte y las defunciones de mujeres duplican las de los hombres.

Como consecuencia de la mayor longevidad de las mujeres, entre los varones, el 62,8% de los fallecidos estaba casado y el 18,3% viudo, por el contrario, entre las mujeres las viudas constituyen el 58,8% y las casadas el 24,1%. El número de matrimonios disueltos por defunción de uno de los cónyuges asciende en 2000 a 8.184.

Según la Clasificación Estadística Internacional de Enfermedades y Problemas Relacionados con la Salud, de la Organización Mundial de la Salud (10ª revisión), en 2000, el 32,3% de las defunciones se debe a enfermedades del sistema circulatorio con 5.900 muertes, a continuación se sitúan los tumores con 29,5% y 5.378 defunciones. A mayor distancia se encuentran las enfermedades respiratorias y las digestivas, que suponen el 10,7% (1962), y el 5,2 (957) respectivamente. Por causas externas fallecen 831 personas.

Siguiendo la tendencia observada en los últimos años, se estabiliza el número de muertes debidas al SIDA, que han pasado de 92 en 1999 a 93 en 2000.

2000AN, HERIOTZEN KOPURUA 18.242RA IRITSI DA EUSKAL AEN, ETA JAIOTZAK BAINO 18.242 GEHIAGO IZAN DIRA.

Heriotzen estatistika, jaiotzen eta ezkontzen estatistikak bezala, biztanleriaren berezko mugimenduaren zati bat da. Estatistika hori aspaldidanik egiten da, lehen datuak 1861ekoak baitira; hori dela eta, posible da aldi horretan izan diren demografi aldaketak eta horien bilakaera jakitea. Biztanleriaren berezko mugimenduak zehazten ditu, migrazio-mugimenduekin batera, biztanle-kopuruaren gorabeherak.

2000an, Euskal Autonomia Erkidegoan hildakoen kopurua 18.242koa izan da: 9.801 gizonezko eta 8.441 emakumezko. Aurreko urtean baino 154 hildako gutxiago izan dira; beraz, kopuru hori % 0,8 jaitsi da, 1999aren aldean. Herrialdeka, 2.191 bizilagun Araban bizi ziren, 10.214 Bizkaian eta 5.837 Gipuzkoan.


Argitalpen honetako 2.3 taulan ikus daiteke nolako bilakaera izan duten heriotzek 1989tik, eta heriotza horiek nola banatu diren udalerrien, eskualdeen eta probintzien artean. Heriotzak igo egin dira azken urteotan, zeren biztanle zaharrak gehitu egin baitira, gaixotasunen prebentzioan eta tratamenduan izandako aurrerapenen ondorioz.

Hildakoen batez besteko adina 74,7 urtera iritsi da 2000an: 70,9 gizonezkoena eta 79,2 emakumezkoena, zeinak bizitza luzeagoa baitute. 80 urte arte, gizonezko hildakoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa da adin guztietan. Hain zuzen, 3 urtetik 73ra, emakumezkoak baino bi aldiz gizonezko gehiago hiltzen da. Nolanahi ere, 80 urtetik aurrera, erlazio hori irauli egiten da, eta emakumezkoen heriotzak gizonezkoenak baino bi aldiz handiagoak dira.

Emakumezkoen bizitza luzeagoaren ondorioz, gizonezkoen artean, hildakoen % 62,8 ezkontuta zeuden eta % 18,3 alargun; emakumezkoen artean, berriz, alargunak % 58,8 ziren, eta ezkontuak % 24,1. Ezkontideetarikoa bat hiltzeagatik ezabatutako ezkontzak 8.184ra iritsi ziren 2000an.

Munduko Osasun Erakundearen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren (10. berrikuspena) arabera, 2000an, heriotzen % 32,3 zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragin zituzten (5.900 hildako); ondoren, tumoreak daude, 5.378 hildakorekin (% 29,5). Urrunago daude arnas eta txegoste-aparatuko gaixotasunak, zeinek % 10,7 (1.962) eta % 5,2 (957) hartzen baitute, hurrenez hurren. Kanpo-kausengatik, 831 lagun hil ziren.

Azken urteotan antzemandako joerari jarraituz, egonkortu egin da HIESak eragindako heriotza-kopurua, 1999ko 92tik 2000ko 93ra pasatu baitira.



En la tabla 1 de defunciones por causa, se ha seguido el mismo desglose que facilita EUROSTAT en sus publicaciones anuales, para los países de la Unión Europea.

1. taulan (heriotzak kausaren arabera), EUROSTATEk Europar Batasuneko herrialdeei buruz urteroko argitalpenetan eskaintzen duen kausa-banaketari jarraitu diogu.

1. TAULA
1. TABLA

TAULA HERIOTZEN ESTADISTIKA
TABLA ESTADÍSTICA DE DEFUNCIONES

NU

HERIOTZAK KAUSAREN ARABERA DEFUNCIONES POR CAUSA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI			ARABA ÁLAVA			BIZKAIA			GIPIZKOA		
	Guztira Total	Gizon. Varones	Emak. Mujeres	Guztira Total	Gizon. Varones	Emak. Mujeres	Guztira Total	Gizon. Varones	Emak. Mujeres	Guztira Total	Gizon. Varones	Emak. Mujeres
GUZTIRA / TOTAL	18.242	9.801	8.441	2.191	1.202	989	10.214	5.469	4.745	5.837	3.130	2.707
Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak Enfermedades del aparato circulatorio	5.900	2.839	3.061	652	323	329	3.411	1.628	1.783	1.837	888	949
Bihotzeko gaixotasun iskemikoak Enfermedades isquémicas del corazón	1.677	1.019	658	198	117	81	952	575	377	527	327	200
Gaixotasun zerebrobaskularrak Enfermedades cerebrovasculares	1.672	747	925	184	85	99	940	416	524	548	246	302
Tumoreak Tumores	5.378	3.380	1.998	689	448	241	3.015	1.891	1.124	1.674	1.041	633
Uradaileko, koloneko, ondesteko eta uzkitumore gaiztoa Tumor maligno del estómago, colon, recto y ano	1.055	647	408	141	89	52	581	359	222	333	199	134
Zintzurrezteko, bronkioetako eta birikitakotumore gaiztoa Tumor maligno tráquea, bronquios y pulmón	905	774	131	114	95	19	510	439	71	281	240	41
Emakume-ugatzeko eta umetoki-lepoko tumore gaiztoa Tumor maligno de mama femenina y cuello de útero	339	2	337	45	-	45	194	1	193	100	1	99
Diabetes mellitus-a Diabetes mellitus	437	180	257	50	24	26	240	88	152	147	68	79
Pneumonia, bronkitisa, enfisema eta asma Neumonía, bronquitis, enfisema y asma	1.216	73	29	19	10	103	59	44	56	37	19	155
HIES SIDA	93	80	13	8	6	2	65	56	9	20	18	2
Kanpo-kausak Causas externas	831	610	221	95	64	31	447	328	119	289	218	71
Ibilgailu motordunak Accidentes de vehículos de motor	302	222	80	38	26	12	164	122	42	100	74	26
Suizidioak Suicidios	165	117	48	17	12	5	93	65	28	55	40	15


La distribución de las defunciones difiere según el sexo, ya que entre los varones, los tumores superan a las enfermedades del aparato circulatorio, mientras que entre las mujeres la principal y destacada causa son las enfermedades cardiovasculares, y en segundo lugar los tumores.

Heriotzen banaketa ez da berdina sexuen arabera, zeren, gizonen artean, tumoreak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino gehiago baitira; emakumezkoen artean, aldiz, kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak dira, eta bigarren tokian, tumoreak.

Distribución de las defunciones por grandes grupos de causa. (%)

Heriotzen banaketa kausa-talde handien arabera. (%)

2.



Desglosando más detalladamente, se observa que la primera causa de defunción en los varones es el tumor maligno de tráquea, bronquios o pulmón, con 774 fallecimientos (7,9%); en segundo lugar las enfermedades cerebrovasculares con 747 (7,6%); las enfermedades crónicas de las vías respiratorias inferiores con 618 fallecimientos ocupa el tercer lugar (6,3%), seguidas de los infartos agudos de miocardio (598 personas y un 6,1%).

El grupo "Enfermedades cerebrovasculares" con 925 defunciones (11%), seguido de "Otras enfermedades del corazón" con 557 defunciones (6,6%), la insuficiencia cardíaca con 419 defunciones (5%) y los infartos agudos de miocardio con el 4,5%, originan el mayor número de muertes entre las mujeres. Dentro de los tumores, el de mama causó 312 defunciones.

La distribución de las defunciones varía también con la edad. En los menores de un año las defunciones más frecuentes son debidas a ciertas afecciones originadas en el periodo perinatal. Entre los varones de 15 a 34 años y las mujeres de 15 a 24 las causas externas aparecen en primer lugar, y dentro de ellas los accidentes de tráfico. En los grupos de edad posteriores, hasta los 75 años, los tumores aparecen en primer lugar, a medida que aumenta progresivamente el peso de las enfermedades del aparato circulatorio, que constituyen la principal causa de defunción a partir de los 75 años.


Heriotza-kausak xehetasun handiagoz aztertzen badugu, ikusiko dugu nola gizonen lehenengo heriotza-kausak zintzurresteko, bronkio eta biriketako neoplasia gaiztoa den, 774 hildakorekin (% 7,9); bigarren tokian, gaixotasun zerebrobaskularrak, 747rekin (% 7,6); beheko arnasbideetako gaixotasunek, 618 heriotzarekin, hirugarren tokia betetzen dute (% 6,3), eta haien atzetik, miokardioko infartu akutuak (598 lagun eta % 6,1a).

Emakumezkoen artean, berriz, hona hemen hildako gehien eragiten duten taldeak: lehenik, "gaixotasun zerebrobaskularrak" taldea, 925 hildakorekin (% 11); ondoren, "bihotzeko beste gaixotasun batzuk", 557 hildakorekin (% 6,6), bihotzeko gutxiegitasuna, 419 hildakorekin (% 5) eta miokardioko infartu akutuak, % 4,5arekin. Tumoreen artean, bularrekoak 312 hildako eragin zituen.

Heriotzen banaketa, era berean, ez da berdina adinaren arabera. Urtebetetik behekoetan, heriotza ohikoak jaiotza-inguruan sortutako afekzioek eragiten dituzte. 15 eta 34 urte arteko gizonen eta 15 eta 24 urte arteko emakumezkoen artean, kanpo-kausak agertzen dira lehen tokian, eta horien barruan, trafik-istripuak. Ondorengo taldeetan, 75 urtebete arte, tumoreak agertzen dira lehen tokian, eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunen pisua haziz joaten da; horixe da, hain zuzen, heriotza-kausak nagusia, 75 urtetik aurrera.


Distribución de las defunciones por grandes grupos de causa según la edad (Varones). (%)

3. Heriotzen banaketa, kausa-talde nagusiei jarraiki, adinaren arabera. (Gizonezkoak) (%)



Distribución de las defunciones por grandes grupos de causa según la edad (Mujeres). (%)

4. Heriotzen banaketa, kausa-talde nagusiei jarraiki, adinaren arabera. (Emakumezkoak) (%)



Entre las muertes por causas externas destacan los accidentes de tráfico de vehículos de motor con 302 defunciones y los suicidios con 165. En ambos casos fallecen mayor número de varones que de mujeres: 222 varones y 80 mujeres por accidente de tráfico y 117 varones y 48 mujeres por suicidios.

Del total de defunciones de 2000, 561 han ocurrido fuera de la C.A. de Euskadi; la causa muestra algunas particularidades, el primer motivo de defunción también son las enfermedades circulatorias, las causas externas aparecen en segundo lugar y constituyen el 21,7% de estas defunciones, destacando los accidentes de tráfico.

Kanpo-kausak eragindako heriotzen artean, ibilgailu motordune-ko trafiko-istripuak nabarmentzen dira (302 hildako), bai eta suizidioak ere (165). Bi kasu horietan, emakumezkoak baino gizonezko gehiago hil dira: 222 gizonezko eta 80 emakumezko, trafiko-istripuengatik, eta 117 gizonezko eta 48 emakumezko, suizidioengatik.

2000ko heriotza-kopuru osotik, 561 Euskal AEtik kanpo gertatu dira. Heriotza horien kausak zenbait berezitasun erakusten ditu: lehenengo heriotza-arrazoia zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira; kanpo-kausak bigarren tokian agertzen dira, eta heriotza horien % 21,7 hartzen dute, eta horien artean, trafiko-istripuak gailentzen dira.

En cuanto a la mortalidad infantil, 53 niños fallecieron antes de cumplir el primer año de vida, es decir, han fallecido 3,1 menores de un año por cada mil nacidos este año. La mortalidad neonatal, producida en los primeros 28 días de vida, contabiliza 34 defunciones; 29 se deben a la mortalidad neonatal precoz, ocurrida en la primera semana; 16 de ellas durante las primeras 24 horas. Entre los menores de un año las defunciones de mujeres (30) superan las de los varones (23).

CRECIMIENTO VEGETATIVO

Sin tener en cuenta los movimientos migratorios, la población de la Comunidad Autónoma de Euskadi desciende por décimo año consecutivo debido a la diferencia entre el número de nacimientos y el de defunciones. Después de los fuertes saldos vegetativos que se producían en los años 60 y principios de los 70, en 1990 el crecimiento vegetativo tuvo signo negativo -por primera vez desde 1937- y desde entonces se mantiene este signo, situándose en 2000 en -926. Como en años anteriores el comportamiento de cada Territorio es diferente; sigue siendo en Bizkaia donde se produce el mayor saldo negativo de la Comunidad, ya que pierde por este concepto 1.396 habitantes; Gipuzkoa, gana 174 habitantes; Álava, el único territorio en el que aún no se ha producido el crecimiento negativo, cifra su saldo positivo en 296.

Haurren heriotza-tasei dagokienez, 53 ume lehen urtea beteurretik hil ziren, hau da, urtebetetik beheko 3,1 hil ziren, urte horretan jaiotako mila bakoitzeko. Jaioberrien heriotza-tasak, hau da, bizitzako lehen 28 egunetan gertatzen denak, 34 hildako zenbatu ditu: 29 jaioberrien heriotza goiztiarrei dagozkie, hau da, lehen astean gertatutako heriotzei (horietarik 16, lehen 24 orduetan). Urtebetetik behekoen artean, emakumezkoak (30) baino gizonezko (23) gutxiago hil dira.


HAZKUNDE BEGETATIBOIA



Migrazio-mugimenduak kontuan izan gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria jaitsi egin da bederatzigarren urtez jarraian, jaiotzen eta heriotzen arteko aldea dela eta. 60 urteetan eta 70 urteen hasieran, saldo begetatiboak oso handiak izan ziren; 1990ean, hazkunde begetatiboak zeinu negatibo izan zuen -lehen aldiz 1937tik-, eta orduetik ez da aldatu zeinu hori, eta 2000an -926koa izan da. Aurreko urteetan bezala, herrialde guztiek ez dute portaera bera izan: erkidegoko saldo negatibo handiena berriro ere Bizkaian gertatu da, saldo hori dela eta 1.396 biztanle galdu baititu; Gipuzkoan, berriz, 174 biztanle irabazi dira eta azkenik, Araba da hazkunde negatibora iritsi ez den herrialde bakarra, eta hango saldo positiboa 296ra iritsi da.



Evolución del crecimiento vegetativo 1975-2000

Hazkunde begetatiboaren bilakaera 1975-2000

5.







Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.es